



Italiako

ingurumen-
merkatuaren analisia

Aukerak identifikatzea

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

LABURPEN

EXEKUTIBOA

Azterlan honen bidez zehaztu nahi dira Italiako ingurumen-merkatuaren ezaugarriak eta tamaina eta, horrekin batera, identifikatu nahi da zeintzuk diren Euskadiko ingurumen arloa osatzen duten mota desberdinetako agenteei aplikatzeko moduko balizko aukera-ildoak.

Ingurumen-sektorea aztertzeko kontuan hartu dira sei balio-kate garrantzitsuenak, hauek hain zuzen: *Uraren ziklo integrala, Airearen kalitatea (airea eta kutsadura), Hondakinak, Lurzoru kutsatuak, Ekosistemak eta Fabrikazio ekoeraginkorra eta Ekodiseinua.*

Merkatu-balioaren ikuspegitik, Italiako merkatuak 29 mila milioi dolarreko langa gainditu zuen 2020an, laugarren postuan kokatu zelarik Europako ingurumen arloko merkatuan eta zazpigarrenean mundu mailan.

Kateei dagokienez, lehentasuna eman zaie merkatuan intzidentzia handiena dutenei eta, hortaz, enpresentzat aukera interesgarri gehien eskaintzen dituztenei.

Zehazki, PNRR planean aurreikusitako inbertsio-bolumenaren arabera, Italiako merkatuak aukerak sortuko ditu bertako enpresek (edo merkatuan aurkitzen diren beste herrialde batzuetako enpresek) eskain ezin dituzten zerbitzuak osatu ditzaketen enpresentzat, batez ere balio-kate hauetan: **Uraren ziklo integralean** -kate honetako produktuen inportazioek % 42ko pisua dute guztizkoarekin alderatuta-, **Hondakinen kudeaketan eta Airearen kalitatean.**

Gestión de Residuos



Suelos Contaminados



Ciclo integral del agua



Calidad ambiental



Ecosistemas



Fabricación Ecoeficiente y Ecodiseño



Ingurumen arloko legeriari dagokionez, Italia gero eta inplikatuago dago ingurumenaren babesarekin, eta berriki aldatu du bere Konstituzioa, espresuki adierazteko babestu egin behar dela ingurumena.

Bereziki azpimarragarria da Suspertze eta Erresilientzia Plan Nazionala (PNRR), eta ingurumen sektorean egingo diren inbertsio handiak, izan ere, Trantsizioko Ministerioak 34.000 milioi euroko aurrekontua izango du besteak beste hondakinen kudeaketako lantegiak egiteko, estolderia eta araztegiak eraikitzeko, ekonomia zirkularreko FARO proiektuak garatzeko eta parke berdeak digitalizatzeko.

Italiak bere kate nagusietan duen jarduerari dagokionez:

Hondakinen arloan, Italiak Europako birziklapen-tasa handienetako bat du, nahiz eta alde handiak dauden eskualdekako efizientzia-tasen artean. Sektore horretan antzeman da badagoela premia birziklapen arloko teknologia berrietarako eta birziklapen gaitasunak handitzeko. Gainera, Trantsizio Ekologikoko Ministerioak (MITE) 2022ko ekainaren 30ean onartu zuen **Hondakinen Kudeaketako Programa Nazionala 2022-2028**, zeina eskualde eta probintzietara bideratua baitago hondakinen kudeaketaren planifikazioari dagokionez.

Hondakinen kasuan bezala, **uraren** arloan ere alde handiak daude Italiako panorama hidrikoaren efizientziari dagokionez, batik bat iparraldearen eta hegoaldearen artean. Arazo larrienak dira banaketan gertatzen diren ihesak, ura beste sektore batzuetan berrerabiltzeko teknologien beharra eta tratamendurako azpiegiturak. Gainera, Italiako Gobernuak apustu irmoa egiten ari da PNRR planaren bitartez **gatzgabetze lantegiak eraikitzeko eta, horrela, ura edangarri egiteko.**

Euskal enpresentzat potentzial gehien duten eskualdeak identifikatzean hainbat udalerrri hartu dira kontuan, horietan kontzentratuko baita aurrekontuaren % 50 baino gehiago. **Torino, Genoa eta Venezia** dira udalerrri horiek.

Eskualdeetan funtsezkoa izango da identifikatzea **Eskualdeko erreferentziako ingurumen-agentzia (ARPA)**, berau delako esparru honetako aukerak identifikatu eta zehazteko ingurumen arloko organismo publikoa.

Negozioei dagokionez, hainbat joera nabarmentzen dira, esaterako beheranzko integrazioa, batik bat hondakinen gaikako bilketaren hobekuntzan eta materialen berreskuratze eta birziklapenean, eta baita ere birziklapen teknologia berritzaileen garapena, tokiko aliantzak sortuz hondakinen sektorekoak ez diren kanpoko eragileekin. Uraren arloan, aukera interesgarriak sor daitezke ura aurrezteko zein hondakin urak berrerabiltzeko konponbideetan eta estolderiako lohien berrerabilpenean.

Bukatzeko, aipagarria da Italiak esportazio aukera handiak eskaintzen dizkiela Euskadiko bazkideei ingurumen arloko ia sektore guztietan, inbertsio handiak egingo baitira hemendik aurrera. Baina kontuan hartu behar da merkatu heldu eta konplexua dela, **aintzat hartu beharreko oztopo burokratikoak eta araudiak dituen**. Horregatik, aztertu behar da komeni den tokiko enpreekin bazkidetzea zenbait aukera-nitxotara sartzeko.

EUSKADI

BASQUE COUNTRY



Alameda Urquijo, 36 5ª Planta Edificio Plaza Bizkaia
48011 Bilbao info@basquetrade.eus
(+34) 94 403 71 60